

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudioko Udaleko alkate lehendakariaren 2024ko ekainaren 27ko 1028 zenbakidun Dekretuaren bidez hartutako ebazpenaren laburpena. Erabaki horren bidez, 2024. urtean jaietako programak egiteko lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia onartu da

BDNS(Identif.): 772621.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/772621>).

Lehenengoa. Onuradunak

Deialdi honen bidez, subjektu indibidualek edo elkarteek sustatutako jaietako-programak arautzen dira, baldin eta 2024an gure udalerrian jaietako programak sustatzen badituzte.

Bigarrena. Xedea

Gure udalerrian 2024an jaietako programak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena. Oinarri arautzailea

Laudioko Udaleko alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 27ko 1028 zenbakiko Dekretuaren bidez onartutako ebazpen bidez onartu zen.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako zuzkidura 40.000,00 eurokoa izango da. Zenbateko hori lote hauetan banatuko da:

1. lotea: 2024ko San Prudentzio jaiak direla-eta gure udalerrian antolatu beharreko haur-dan-borradarako dirulaguntza (1.600,00 euro).
2. lotea: 2024ko herriko jaietako ekitaldietarako dirulaguntza (dirulaguntza izenduna izapidetzen den ekitaldiak lote honetatik kanpo geratzen dira) (38.400,00 euro).

Gastua egotziko zaie Laudio Udaleko 2024ko aurrekontuko udal-aurrekontuko "Sanroketa-rako dirulaguntzak / Subvenciones fiestas San Roque" aplikazioan (0403 3381 48119).

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak hogeiei egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskaera egiteko eskabide normalizatuan, egoitza elektronikoaren bidez, pertsona juridikoen kasuan, eta egoitza elektronikoaren bidez edo Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bidez, pertsona fisikoen kasuan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako moduetan.

Laudio, 2024ko ekainaren 27a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ